



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Erakunde Adierazpena Sestaoko La Naval ontziolari buruzkoa

Bilbon, 2014ko otsailaren 24an

2010eko apiriletik Sestaoko ontziolak bederatzi EEE jasan ditu, zortzi etetekoak eta bat iraungitzekoa. Denbora horretan arian-arian joan da galtzen lan-karga, zuzeneko langileentzako ez ezik, laguntza-industrietako langileentzako ere.

Gaur egun garbitu egin da tax leaseko laguntzak itzultzearen gaineko zalantza (Europako Batzordeak eta Espainiako Gobernuak kalkulua egiteko metodologia adostea besterik ez da gelditzen), eta Euskadiko gainontzeko ontziolak "tax leaseko" modalitate berriekin ontziak kontratatzen edo kontratuak zuzenean egiten dituzten bitartean, Sestaoko La Navalek, ordea, ez du batere kontraturik lortu.

Bien bitartean, La Navaleko langileek langabezia-saria gastatzen jarraitzen dute, eta Ezkerraldean langabezia handitzen ari da beti.

Arduragabekeria litzateke uztea halako enpresa historiko batek, hala nola den Sestaoko La Naval, hainbestearainoko industria-indarra duenak, bere langintzan Europan eta munduan halako gaitasun aitortua duenak, eta denetan garrantzitsuena dugunak Ezkerraldean enplegu kopurua sortzeari dagokionez, hor jarraitzea ontzirik bat bera ere kontratatu gabe eraikitzeko.

Azkeneko ontzia martxoan entregatu ondoren, Sestaoko ontziola kinka larri batean suertatuko da. Horrek kolokan jarri dezake ontziolaren etorkizuna, lanpostu finakoak eta aldi baterakoak batuz 1.500etik gora langileri lana ematen dien azken industria-gotorlekua, hain zuzen. Galerak kalte egingo lioke zerbitzu-sektoreari eta Ezkerralde guztiari, langabeziak lehendik ere gogor zigortutako eskualde horri.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Batzar Nagusiek beharrezkotzat jotzen dute erabakiak sustatzea ontziolen sektore honen interesen fabore, eta apustu egitea Sestaoko ontziolaren bideragarritasunaren alde ez ezik, euskal ontzigintza-sektorearen geroaren alde ere, enplegua eta aberastasun sozi-ekonomikoa sortzen duen industria dugun aldetik".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Declaración Institucional de apoyo a La Naval de Sestao

En Bilbao, a 24 de febrero de 2014

Desde abril de 2010 el astillero de Sestao ha sufrido ocho EREs de suspensión y uno de extinción. Durante ese tiempo ha ido desapareciendo paulatinamente la carga de trabajo, no solo para los trabajadores directos, sino también para los de las industrias auxiliares.

Despejada hoy la incógnita sobre la devolución de las ayudas del "tax lease" (tan solo queda que la Comisión Europea y el Gobierno de España acuerden la metodología de cálculo), y mientras el resto de astilleros vascos contratan buques con la nueva modalidad de "tax lease" o realizan los contratos de manera directa, La Naval de Sestao no ha logrado ningún contrato.

Mientras tanto, los trabajadores de La Naval siguen gastando desempleo y en la Margen Izquierda sigue creciendo el paro.

Sería una irresponsabilidad permitir que una empresa histórica como La Naval de Sestao, con un potencial industrial importante, con una capacidad profesional altamente reconocida a nivel europeo y mundial y la más importante en cuanto al volumen en la creación de empleo en la Margen Izquierda, siguiera sin contratar la construcción de ningún barco.

Tras la entrega del último buque en el mes de marzo, el astillero de Sestao entrará en una situación muy grave, que puede poner en cuestión el futuro del astillero, el último bastión industrial que da empleo a más de 1.500 personas entre empleo fijo y eventual. Su pérdida perjudicaría al sector servicios y a toda la Margen Izquierda, comarca ya duramente castigada por el paro.

Por todo ello, las Juntas Generales de Bizkaia entienden necesario que se promuevan decisiones favorables a los intereses de este sector naval y que se apueste no solo por la viabilidad del astillero de Sestao, sino también por el futuro del sector de construcción naval vasco como industria generadora de empleo y de riqueza socioeconómica.